

ORDEZKARIEN ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ORDEZKARIEN ZIURTAGIRIEI
DAGOKIEN POLITIKA



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	ALDAKETAK
1.0	<ul style="list-style-type: none">– 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura egokitzea.
1.1	<ul style="list-style-type: none">– Ordez kariaren eta Nortasun juridikorik gabeko ordez kariaren ziurtagiria software-euskarrian jaulkitzeko eta entregatzeko prozedura gehitu da.– Ordez kariaren ziurtagiria HSM euskarrian jaulkitzeko aukera ezabatu da.– Gailu bakoitzerako OID espezifikoa definitu da.
1.2	<ul style="list-style-type: none">– Ordez kariaren ziurtagiria HSM euskarrian jaulkitzeko aukera ezabatu da
1.3	<ul style="list-style-type: none">– Ordez kariaren Politikaren 1.3 bertsioak erregulatzen du ziurtagiri hau HSM euskarrian jaulkitzea.– 2. epigrafea: ziurtagiriaren bizi-zikloaren deskribapena eguneratu da.
1.4	<ul style="list-style-type: none">– 2020ko erro berrien profilak gehitu dira

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.5	2022/03/21	<p>Epigrafeak,</p> <ul style="list-style-type: none">– 1.2: Oinarrizko CA 2007 hierarkia: politika-identifikatzailea eguneratu da.– 2: eskatutako dokumentazioa eguneratzea eta bizi-zikloaren idazketa eguneratu da.– 2.6: Ezeztatzeko prozedura eguneratu da.– Epigrafe hauek sartu dira: 5: pribatutasuna eta datuen babesa, 6: gatazkak konpontzeko mekanismoak eta 7: aldaketaren kudeaketa-prozesua eguneratu da.
1.6	2022/10/13	<p>Epigrafeak,</p> <ul style="list-style-type: none">– 1.1. Indarreko araudia eguneratzea.– 1.4.2. Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharrak: CPS epigrafearen erreferentzia kentzen da.– 2.2. Eskatzailearen nortasuna egiaztatzea,<ul style="list-style-type: none">▪ Identifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eguneratzea.▪ Baliozko ziurtagiri kualifikatu baten bidez egindako egiaztapen-prozedura eguneratzea.



		<ul style="list-style-type: none">- 2.6 Ziurtagiria baliogabetzea,<ul style="list-style-type: none">▪ Interes legitimoa duen hirugarren bat sartzen da baliogabetzearen eskatzaile posible gisa.▪ izenpe@izenpe.eus helbidera bidaliz egindako ziurtagiri baten baliogabetze prozedura eguneratzen da.- 5. Informazioaren segurtasunari buruzko erreferentziak sartzea.- 6. eta 7. Izenburuen ordena aldatzen da.- Dokumentua generoa barne hartzen duen hizkuntzaren ikuspegitik eguneratzen da
1.7	2024/09/30	Epigrafeak, -Araudia eguneratzea -2.2: Bideo bidezko identifikazioa sartzea



AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIARIAREN DESKRIBAPENA.....	5
1.1	DEFINIZIOA.....	5
1.2	EUSKARRIA ETA SEGURTASUN-MAILA	5
1.2.1	OINARRIZKO CA 2007 HIERARKIA (CN=IZENPE.COM)	5
1.3	ERABILERA-ESPARRUA.....	6
1.4	BETEBEHAR OROKORRAK	6
1.4.1	IDENTIFIKAZIO-BETEBEHARRAK.....	6
1.4.2	ZIURTAGIARIAREN HARPIDEDUNAREN BETEBEHARRAK	6
2	ZIURTAGIARIAREN BIZI ZIKLOA	7
2.1	ESKABIDEA.....	7
2.2	PERTSONA FISIKO ESKATZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA	7
2.3	ERAKUNDEAREN AKREDITAZIOA ETA ESKATZAILEAREN AHALMENAK	8
2.4	ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA	8
2.5	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA	8
2.6	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA.....	9
2.7	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA	9
3	ZENBATEKOA	9
4	ZIURTAGIRIEN PROFILAK	10
5	INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA	10
6	ALDAKETAREN KUDEAKETA	10
7	ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK	10



Dokumentu honek *Erakundearen ordezkariaren eta Nortasun juridikorik gabeko erakundearen ordezkariaren* ziurtagiriei dagokien *Politika* jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA* enpresak (aurrerantzean IZENPE) jaulki du ziurtagiri hori.

Dokumentu honen helburua da IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* ziurtagiri mota horretarako definitutakoa zehaztea eta osatzea www.izenpe.eus/dpc

1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Bi ziurtagiriak pertsona fisikoaren kualifikatu gisa ematen dira, *910/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera –910/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, 2024ko apirilaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1183 (EB) Erregelamenduaren bidez aldatua*–.Erakundeari lotuta daude eta identifikatutako pertsona fisikoaren legezko ordezkariaren izaera akreditatzen dute.

Honela ulertuko dira:

- **Harpideduna:** erakundea.
- **Gakoan edukitzailea:** ziurtagirian identifikatutako pertsona fisiko eskatzailea izango da, erakundearen izenean jarduteko ahalmena duena.

Politika honetan jasotako ziurtagiriek 4 urteko iraunaldia dute.

1.2 Euskarria eta segurtasun-maila

1.2.1 Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=Izenpe.com)

ERAKUNDEKO ORDEZKARIA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Erakundearen ordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.14	Oinarrizkoa (Giltzarekin)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.12	Altua	Aurreratua
	IZENPEren software-edukitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.16	Ertaina	Aurreratua



NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEKO ORDEZKARIA						
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila		Sinadura mota eIDAS
				Altua (txartel birtualar ekin)	Ertaina (Giltzarekin)	
Nortasun Juridikorik Gabeko erakundeko ordezkaria	HSMa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.15	Altua (txartel birtualar ekin)	Ertaina (Giltzarekin)	Aurreratua
	Txip kriptografikoa	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.13	Altua		Aurreratua
	IZENPEren software-educitzailea	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.17	Ertaina		Aurreratua

1.3 Erabilera-esparrua

Erabiltzaileak Politika honetan definitutako ziurtagiria erabiliko du ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarren batzuek eskainitako zerbitzuetan, betiere Terminoak eta baldintzak dokumentuan eta IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin. Bi dokumentu horiek www.izenpe.eus/condicionesuso/ eta www.izenpe.eus/dpc web-orrietan argitaratuta daude.

1.4 Betebehar orokorrak

1.4.1 Identifikazio-betebeharrak

IZENPEk dagozkion erregistroetan egiaztatzen ditu, bere kabuz edo dagokion lege-tresna izenpetu duten erakunde erabiltzaileen bitartez, ziurtagirian jasota dauden identitatea eta beste edozein inguruabar pertsonal.

1.4.2 Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharrak

Harpidedunaren betebeharrak dira [Ziurtapen Praktiken Deklarazioaren](#) Ziurtagiri-harpidedunaren betebeharren atalean jasotakoak.



2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Eskabidea

Eskatzaileak, www.izenpe.eus webgunera sartuta, Jaulkitzeko Eskaera bete eta sinatuko du, eta *Erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.

2.2 Pertsona fisiko eskatzailearen identitatea egiaztatzea

IZENPEk eskatzailearen identitatea egiaztatuko du,

➤ Aurrez aurre

Eskatzaileak www.izenpe.eus webgunera sartu eta hitzordua eskatuko du erregistro-entitatearen aurrean bertaratzeko, eta honako dokumentuak eraman beharko ditu, indarrean:

- Espainiako nazionalitatea duen herritarra: NAN, pasaportea edo gidabaimena.
- Europar Batasuneko herritarra: jatorrizko herrialdeko pasaportea edo nortasun agiriarekin batera, Batasuneko kide diren Herriarren Erregistroak emandako Atzerritarren Identifikazio Txartela edo ziurtagiria edo NIEa ematen duen agiri ofiziala.
- EBtik kanpoko herritarra: pasaportea Atzerritarren Identifikazio Txartelarekin edo AIZ emateko agiri ofizialarekin batera.

– Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.

Eskatzaileak:

- *Jaulkitzeko Eskaera* bete eta sinatuko du, eta *Erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu. Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE SAREN helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.

– Edo indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu bidez.

Horretarako, eskatzailea www.izenpe.eus webgunera sartuko da eta Jaulkitzeko Eskaera sinatuko du EBko TSL-n (Trusted Service List) sartutako CA batek emandako ziurtagiri kualifikatu baten bidez.

- Urrutitik identifikatzea, hauen arabera,

ETD/465/2021 Agindua, maiatzaren 6koa, ziurtagiri elektronikoko kualifikatuak emateko bideo bidezko urruneko identifikazio-metodoak arautzen dituena, eta uztailearen 26ko ETD/743/2022 Agindua, bideo bidezko urruneko identifikazio-metodo kualifikatuak arautzen dituen maiatzaren 6ko ETD/465/2021 Agindua aldatzen duena.

Bideo bidezko urruneko identifikazio-prozesua laguntzarik gabe egingo da, operadore baten eta eskatzailearen arteko lineako interakziorik gabe, eta, ondoren, operadore batek berrikusiko du.

Prozesua,

- Eskatzaileak gailu mugikor bat izan beharko du kamerarekin, edo webcam bat eta mikrofono bat.



- Izenpek zure nortasun-agiria (NAN/AIZ) erakusteko eta interakzioak eta jarduera fisikoak egiteko eskatuko dizu bizi-proba gisa. Prozesu hori grabatu egingo da.

2.3 Erakundearen akreditazioa eta eskatzailearen ahalmenak

IZENPEK erakundearen eraketa eta indarraldia eta sinatzailearen ordezkartza-ahalmenak egiaztatuko ditu, alderdi horiek akreditatzen dituzten dokumentuen bidez edo bidezko erregistro-egiaztapenen bitartez.

2.4 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

Ondoren, IZENPEK jaulki eta entregatuko du ziurtagiria, aukeratutako euskarriaren arabera.

➤ SOFTWAREA _ IZENPEREN EDUKITZAILEA

1. IZENPEK edukitzaile huts bat bidaltzen dio eskatzaileari posta elektronikoaren bidez eskabidean adierazitako helbidera.
2. Eskatzaileak edukitzailea hasieratu eta pare bat gako eta eskaera teknikoa (csr) sortzen ditu.
3. Eskatzaileak eskabide teknikoaren fitxategia (csr) bidaltzen dio IZENPERi.
4. IZENPEK ziurtagiria jaulkitzen du eskatzaileak emandako eskaera teknikoa erabilia.
5. IZENPEK ziurtagiria bidaltzen du eskabide-inprimakian adierazitako helbide elektronikora.

➤ TXARTELA / USB TOKENA

– Bertaratuta ematea.

IZENPEK eskatzaileari edo baimendutako hirugarrenari (baimen-dokumentua aurkeztu beharko du, sinatua eta notarioak legitimatua) entregatuko dizkio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUK).

– Bertaratu gabe ematea.

IZENPEK ziurtagiria *jaulkitzeko eskabidean* adierazitako posta-helbidera bidaliko ditu ziurtagiria eta gakoak, 2 bidalketa bereizitan. Erakunde eskatzaileak bere gain hartuko ditu bidalketa-gastuak.

IZENPEK egiaztatuko du bidalketa gakoan edukitzaileari bakarrik entregatzen zaiola.

➤ HSMa

IZENPEK,

- Ziurtagiria sortuko du bere HSMan, baita erabiltzaile bat eta pasahitz bat sortu ere (gakoan edukitzaileari bakarrik entregatuko zaizkiola bermatuko du).
- Eta mezu elektroniko bat bidaliko du ziurtagiria *Jaulkitzeko Eskabidean* adierazitako helbidera, ziurtagiria erabiltzeko argibideekin batera.

2.5 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak 15 egun baliodun izango ditu, ziurtagiria jaulkitzen denetik aurrera, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, behar izanez gero, IZENPERi funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.



Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPEri egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.6 Ziurtagiria ezeztatzea

– Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke www.izenpe.eus

– Ezeztatzeko eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Harpidedunak](#), ziurtagiria haren izenean jaulki denean.
- IZENPEk, ZPDan identifikatutako arrazoiaren ondorioz.
- [Legezko interes legitimoa](#) duen hirugarren pertsona.

– Ezeztatzeko prozedura

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak IZENPEren aurrean tramitatuko du ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea.

Honako bide hauetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria, edozein unetan:

- [Aurrez aurre](#), IZENPEri www.izenpe.eus webgunean hitzordua eskatuta.
- [Posta bidez](#), helbide honetara: IZENPE SA - Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 1. solairua – 01008 Gasteiz.
- [Ezeztatzeko eskaera](#) izenpe@izenpe.eus helbidera bidalita, EU TSLn (Trusted Service List) sartutako CA batek igorritako ziurtagiri kualifikatu batekin sinatutako ezeztapen eskaerarekin.

Eskaera jasotzen duenetik 24 orduren barruan (lanegun batean) ezeztatuko du ziurtagiria IZENPEk, eta ziurtagiriaren egoeraren aldaketaren berri emango die eskatzaileari eta harpidedunari, posta elektronikoaren bidez.

2.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria.

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera tramitatuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplikatu daitezkeen tarifak www.izenpe.eus webgunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:



- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- IZENPEren erregistro-entitatera bertaratu eta ordainduta, banku-txartel bidez.

4 ZIURTAGIRIEN PROFILAK

IZENPEk www.izenpe.eus webgunean argitaratzen ditu ziurtagirien profilak.

5 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

IZENPEk www.izenpe.eus/datos webgunean argitaratzen du informazioaren segurtasunari eta pribatutasunari buruzko informazioa.

6 ALDAKETAREN KUDEAKETA

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Berariazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

7 ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

Alderdiek elkarrean artean sor daitekeen edozein gatazka Zuzenbide Kolatobratiboko prozesu bidez ebaztea adostu dute. Adostasunik lortu ezean, Gasteizko Epaitegi eta Auzitegietara jo ahal izango dute.